

FUTBOLA

Roberto eta Spasic Zabalzaren
deialditik landa geratu dira

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Roberto Santamaria eta Pedro Spasic gaur ez dira Albaceterantz abiatuko. Spasicek —orkatilako uzkurduraz— utzitako hutsunea Pascualek bete du. Al-daketa hori alde batera utziz gero, deialdia Realaren kontrako norgehiagokarako egindakoaren berdina da. Pedro Mari Zabalak partidua Osasunarentzat garrantzi handikoa zela azpimarratu zuen deialdia eman bezain laster. «Astero berdin gabilta. Albaceteke bi puntuak garrantzi handikoak dira, eta guretzat garrantzitsua litzateke oso horietako bat —edo biak— lortzea, negatibo kopurua gutxitzeko».

Jarraian, poloniarrek egoera onean daudela azaldu zuen: «Bidaia medio, apur bat nekatuta zeuden baina, hala eta guztiz ere, gaurko entrenamenduan normaltasun osoz aritu dira. Garrantzitsua zera da, Zioberrek ez zuela Norvegiaren kontrako partiduan inolako kolperik jaso, eta Staniekek ez zuela jokatu. Horri esker, litekeena da biak sasoi bete-betean izatea heldu den igandean». Eduk, bestalde, joan den asteazkenean Osasuna eta Osasuna Promesasek jokatu zuten partidutxoan kolpe gogorra jaso

zuen, eta lau puntu eman behar izan zizkioten. Hala eta guztiz ere, bere izena deialdian ageri zen «kolpea zango-babesarekin ongi babestuz gero, inolako arazorik izanen ez duelako».

Zabalak berriro ere puntuak lortzeko premia nabarmendu zuen gero. «Etxeko bi partidua galdu ditugu, eta Albaceten, etxetik at, etxean galdutakoa berreskuratzeko aukera dugu». Horretarako «taldea berpiztu egin beharko da, eta eman dezakeen guztia eman beharko du». Osasunak iaz eta liga honen hasieran Sadarretik at Sadarren baino lasaiago aritzen dela erakutsi du. Zabalak aurtan akats hori konpondu daitekeela adierazi zuen, «Liga hasi besterik egin ez delako, eta gauzak asko alda daitezkeelako». Arrotxapeakoaren ustez, «taldeak aurrerantzean hoberantz egingen du, berriek denbora gehiago behar dute».

Biharko norgehiagokari dagokionez, Albacete aurkari zaila izanen da. «Duela gutxi Barcelonaren kontra jokatzen ikusi genuen. Horren aurka oso ongi jokatu zuen. Bigarren zatian hamar jokalarirekin Barçari aurre egiteko gai izan zen, eta Zaragozaren kontra ere partidua ona egin zuen. Aurkari zaila izanen da».



Etxeko partiduek garrantzi berezia dute Bittor Alkizaren esanetan.

L. ARZUAGA

Alkiza: «Pena litzateke Iruñean
irabazi eta gero huts egitea»

Larrañaga edo Oceano da zalantza Valladoliden aurka jokatzeko

Heynckesek Galdamesen zalantza
du erdi lesionaturik dagoelako

RAMON BASALDUA / BILBO

Jupp Heynckes, Athleticeko entrenatzaileak ez du oraindik erabaki zein izango den bihar arratsaldean Rayo Vallecanoren kontra zelairatuko duen hamai-kakoa, Barcelonaren kontra titular izan zen Jose Manuel Galdames gaztea erdi lesionaturik dagoelako. Galdamesek arazoak ditu bere ezker hankako izterrean eta atzo ez zen bere kideekin batera aritu. Portugaletako atzelerariak Manolo Delgadorekin batera korrika egin zuen.

Gauzak horrela, bihar arte Heynckesek ez du jakingo Galdames jokatzeko prest egongo

den. Beste alde batetik, Andoni Lakabegek ere bere aldetik entrenatu zuen oraindik ere osatzeke dago eta. Azkenik, Julen Guerrero eta Juanjo Valenciak ere ez zuten atzoko entrenamenduan parte hartu, Heynckesek jai eguna eman zuelako.

Athleticek eguerdiko hamabietatik aurrera entrenatuko du gaur Lezaman Jupp Heynckes eta Jose Mari Amorrrorturen aginduetara. Ordu bietan bazkaria izango dute arratsaldean Madrilera bidea hartu aurretik. Gogoratu, arratsaldeko zazpitan hasiko dela bihar Athleticek eta Rayo Vallecanok Vallecasen jokatuko duten partidua.

Entrenamendu luzea egin zuen atzo goizean Realak Zubietan. John Toshackek ez zuen argi utzi zer-nolako sistema erabaliko duen bihar Valladoliden aurka. Larrañaga edo Oceano da zalantza. Titular izango dena Bittor Alkiza da. Bere esanetan, penagarria izango litzateke Iruñean irabazitakoa galtzea.

ENEKOITZ ESNAOLA / DONOSTIA

Oraindik ez du ahaztu jendeak duela bi aste Santiago Bernabeun gertatu zena, bertan Real Madrid boteretsuak 1-3 galdu baitzuen Valladolid apalaren aurka. Bittor Alkiza ere oroitzen da. Hau dela eta, biharko partidua zailtzat jo zuen atzo. «Guztiok

dakigu zer pasatu zitzaien Real Madridi eta partidua zaila izango da. Pena izango litzateke Iruñean bi puntu lortu eta gero, Valladoliden kontra huts egitea». Etxeko neurketak garrantzitsuak direla zioen, «Anoetan indartsu jokatu behar dugu, eta bertako partidua irabazi egin behar dira, puntuak eutsiz». Zalaparta handia sortu zen Bernabeuko markagailuarekin, «eta hau guretzat ona da, kontzentratuta atera behar dugu eta ez erlaxatuta. Kezkatzen gaituen gauza bakarra, gu geu gara eta badakigu partidua ona jokatuz gero, garaipena etxean geratuko dela».

Aurtan, erdilariak, denboraldia oso ongi hasi du, asko ari delako jokatzen, ongi gainera, eta jadanik bi gol sartu ditu. «Beno, pozik nago, baina ez zaio honi garrantzia handirik eman behar, eta

funtsezkoena ekipoa ondo egotea da eta partidua irabaztea».

Atzo, entrenamenduan ikusi zenaren arabera, John Toshackek zalantza bat eduki lezake, hots, aulkian Larrañaga edota Oceano utzi. Aurrenak jokatzen badu, taldeak berriro bost defentsa erabiliko ditu, bestela lau. Beste hamar gizonak Alberto, Fuentes, Alaba, Pikabea, Lumbreras, Carlos Xavier, Albistegi, Alkiza, Luis Perez eta Kodro izango dira.

Realak gaur egingo du azken entrenamendua, arratsaldeko 5.00-5.30ak bitartean hasita Zubietan. Amaieran, zerrenda luzatuko du Toshackek. Hasiera batean, galestarrak saioa goizean egitea pentsatua zuen. Bestalde, Realak, berarekin kolaboratzen duten Gipuzkoako 89 taldeetako ordezkariak afaldu zuen atzo Lasarteko Dana-Ona jatetxean.

SAN MAMESera EGUNKARIA eta BIZKAIA IRRATIArekin

BILBAO ATHLETIC - CASTELLON

PARTIDURAKO SARREREN IRABAZLEAK :

Oihana Bizkarguenaga Lemoa, Bego Ortuzar Igorre, Eider Ruiz de Agirre Erromo, Alex Maguregi Lemoa, Jakinde Zelaia Deustu, Jose Angel Ibarretxe Igorre, Iker Lekue Arantzazu, Miren Jone Aierdi Basauri, Nerea Solatxi Zeberio, Begoña Aginaga Bakio, Eulogio Berrojalbiz Basauri, Aitzol Aretxabaleta Lezama

Entzun **BIZKAIA IRRATIA**n eguen eta barikuetan, goizeko 10.30etan, BIHOTZETIK BIHOTZARI.Euki eizu eskuetan **EUSKALDUNON EGUNKARIA**.BIZKAIA
irratia

F.M. 102.6 MHz

Egunkaria